



16. ORDENANTZA FISKALA, EGUNEKO ZENTROETAKO EGONALDIEN GAINEN TASAK ARAUTZEN DITUENA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA

Erandioko Udalak Eguneko Zentroetako zerbitzuak emateagatik tasak ezarri eta eskatuko ditu Ordenantza honetan xedatuaren arabera eta Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz.

2. ARTIKULUA

Ordenantza hau udal mugartean aplikatuko da.

II. ORDAINDU BEHARRA DUTENAK

3. ARTIKULUA

Eguneko Zentroan emandako edo egindako zerbitzuez baliatzen diren onuradunek izango dute Ordenantza honetan araututako tasak ordaindu beharra.

Zergadunaren ordezkio izango dira tasei buruzko Foru Arauak agindutakoaren arabera zerga obligazioaren prestazio materialak eta formalak zergadunaren ordezkio bete beharra duten subjektu pasiboak.

III. KUOTA

4. ARTIKULUA

Ondoko tarifetan zehaztuko dira tasen zenbatekoak:

- a) Dementzia duen pertsonarentzako plaza..... 49,70 €/eguneko
- b) Ezintasun fisikoak dituen pertsonarentzako plaza 45,95 €/eguneko

Goian adierazitako tarifa horiek Bizkaiko Foru Aldundiak onartuko dituenetara egokituko dira. Dena dela ere, gehieneko kostuaren barruan sartuko da onuraduna etxean hartu eta dagokion Eguneko Zentrora eroateko garraio zerbitzuarena ere.

IV. XEDAPEN GEHIGARRIA

Aurrekontuei buruzko Foru Arauen bidez zein zuzenean aplikagarri diren bestelako arau edo xedapenen bidez Tasaren araubidean gertatzen diren aldaketek Ordenantza Fiskal honen aldaketa eragingo dute, besterik gabe.

V. AZKEN XEDAPENA

Honako Ordenantza hau 2008ko urriaren 29an izandako Osoko Bilkuran aldatu du Udaltza Osoak, eta 2009ko urtarrilaren lehenetik sortuko ditu ondorioak, harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte. Ordenantza fiskal honen zati bat aldatuz gero, aldatu gabeko gainontzeko artikuluek indarrean iraungo dute.